NAFARROAKO IGERIKETA FEDERAZIOA
FEDERACIÓN NAVARRA DE NATACIÓN

Paulino Caballero, 13, 31002 - Pamplona – Iruña
Teléfono y Fax: 948227279
www.fnn-nif.com

EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA
FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN

Julián Gaiarre, 50 – Bajo – 48004 BILBAO
Teléfono 94 459 81 96 – Fax 94 459 81 97
www.eif-fvn.org

02/N zirkularra
2017-2018

DISTANTZIA LUZEKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

1. DATA: **2018ko urtarrilak 28**

2. TOKIA: Maialen Chourraut Kiroldegia (Lasarte-Oria)

3. ORDUTEGIA: **10:00.**

4. IGERILEKUA **25 m eta 6 kale, kronometraje elektronikoarekin**

5. PROBEN EGITARAUA

1.-	2000 libre	Gizonezkoak	Infantil
2.-	2000 libre	Emakumezkoak	Infantil
3.-	3000 libre	Gizonezkoak	Senior-Junior 1/2
4.-	3000 libre	Emakumezkoak	Senior-Junior 1/2

6. PARTE-HARTZEA

6.1. MAILAK:

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
SENIOR	1998 eta zaharragoak	1998 eta zaharragoak
JUNIOR 2	1999 eta 2000	1999 eta 2000
JUNIOR 1	2001 eta 2002	2001 eta 2002
INFANTIL	200**3** eta 2004	2003 eta 2004

6.2. Denboraldi honetan federazioko lizentzia (EIF-FVN eta FNN-NIF) eta 1500 m libre proban, gizonezkoen kasuan, edota 800 m libre proban, emakumezkoen kasuan, beren kategoriako gutxieneko marka duten igerilariek (03-N zirkularra) soilik hartu dezakete parte.

6.3. EIF-FVN eta FNN-NIK federazioek bertako kide ez diren kluben parte-hartzeari baietz esan diezaieke.

6.4. Parte har dezaketen igerilari kopurua mugatua da: 18 gizonezko eta 18 emakumezko guztira. Parte hartzeko asmoa azaltzen duten igerilari kopurua handiagoa izanez gero, 2016-2017 denboraldian 1500 m libre proban, gizonezkoen kasuan, eta 800 m libre proban, emakumezkoen kasuan, marken rankinga kontuan hartuta zerrendak osatuko dira, zerrenda hauetako 18 lehenak, bai gizonezkoetan bai emakumezkoetan, izango dira parte hartuko dutenak.

6.5. Klub bakoitzak nahi beste igerilari aurkeztu ditzake proba bakoitzean, 6.4 puntuan azaltzen den muga kontuan hartuta.

7. IZENEMATEAK

7.1. Klubek bere Federazioari (Euskadikoa edo Nafarroakoa, egokitzen zaienaren arabera) igorri behar dituzte aurre-izenemateak, bere Federazioak emandako ohiko formatua erabiliz.

7.2. Klub bakoitzak bere aurre-izenemateak bidaliko ditu (ohiko posta zerbitzua, posta elektronikoa edo faxa) dagokion Federazioari (Euskadikoa edo Nafarroakoa). Hauek jasotzeko epea urtarrilaren 22ko (astelehena) 15:00etan amaitzen da, eta ez dira ordu eta egun honen ostean jasotakoak onartuko.

7.4. **Araudi honetako 6. puntuan jasotako parte-hartze baldintzak ez badira betetzen izenemateetan klubek ez dute abisurik jasoko, eta beraiek izango dute igerilariaren parte hartzeko ezintasunaren erantzule bakarrak. Federazio antolatzaileak ez dira baldintzak ez betetzeak ekar ditzakeen gastuen erantzule izango.**

7.5. EIF-FVN edo FNN-NIF-ek izenemateen behin-behineko zerrenda bat argitaratuko dute bere webgunean (www.eif-fvn.org edo www.fnn-nif.com) urtarrilaren 23an, asteartea. Akatsik balego zerrendetan EIF-FVN edo FNN-NIF-ri eman behar zaio berri urtarrilaren 25ko, osteguna, 12:00ak baino lehen. Momentu horretatik aurrera ez da onartuko inolako erreklamaziorik.

7.6. Txapelketa EAE-n jokatzen bada, EIF-FVNren barruan dauden klubek izen-emate gastuen kontzeptupean 15€ ordaindu beharko dituzte izenemate bakoitzarengatik.

7.7. EIF-FVN edo FNN-NIF federazioetakoak ez diren kluben kasuan, hauek adieraziko diete klub hauei izenemate gastu gisa ordaindu beharreko kopurua.

8. TXAPELKETA FORMULA

8.1. Serieak marken arabera osatuko dira, jaiotze-urtea kontuan hartu gabe, eta 1500 m libre proban, gizonezkoen kasuan, eta 800 m libre proban, emakumezkoen kasuan kreditutako marka kontuan hartuz. Parte-hartzeko markei baliagarritasuna emango zaie 2016ko urriaren 1etik aurrera.

8.2. Bajak emango balira edota izenemate kopurua ezarritakoa baino txikiagoa balitz, EIF-FVN eta FNN-NIFk serie mistoak presta ditzakete.

8.3. Erlojuaren aurkako sistemaren bidez igeri egingo da.

8.4. Irteera, kasu guztietan, uretatik egingo da.

9. BAJAK

9.1. Bajak idatziz eta inprimaki ofizialetan komunikatuko dira. Hauek egoki beteta eman beharko dira txapelketako idazkaritzan sesio bakoitza baino ordu erdi lehenagora arte.

9.2. Bajak talde bakoitzeko ordezkari edo entrenatzaileak (txapelketa honetarako baimenduak izan beharko dute) eman beharko ditu, seriearen zenbakia, igerilariaren izena eta kalea zehaztuz.

9.3. Parte-hartzaileen zerrenda publikatu ondoren aurkeztutako bajek 2 euroko isuna izango dute. Igerilari batek ez badu bere burua aurkezten proba batera (epe eta forma egokian baja aurkeztu gabe), bere klubak 10 euroko isuna ordaindu beharko du.

10. CLASIFICACIONES y PUNTUACIONES

10.1. Proba eta sexu bakoitzeko sailkapen bat osatuko da. Sailkapen hauek Euskal Herriko gizonezkoen Txapelduna eta Euskal Herriko emakumezkoen Txapelduna finkatuko dituzte.

11. GARAIKURRAK ETA SARIAK

11.1. Proba eta maila bakoitzeko lehenengo hiru sailkatuek domina bana jasoko dute.

12. ZIGORRAK ETA AZKEN OHARRA

12.1. EIF-FVN/FNN-NIF federazioek egokien deritzeten zigorrak ezar ditzakete gutxienekotan edota beste edozein betebeharretan datuak faltsutu direla egiaztatzen bada.

12.2. EIF-FVN/FNN-NIF federazioek Txapelketako Zuzendari bat izendatuko dute txapelketa honetarako, bera izango da txapelketako aginte nagusia, bai txapelketaren antolaketan eta baita erreklamazioetan, txapelketako Epaile Nagusiaren agintean interferentziarik egiten ez dutenean.

12.3. Araudi honetan aurreikusita ez dagoena, EIF-FVN edo FNN-NIF federazioaren (txapelketa jokatzen den lekuaren arabera), edo bere kasuan, RFEN-en txapelketa araudi orokorraren bitartez arautuko da.

12.4.- Federazioek aukera dute bere babesleei kirol-materiala saltzeko stand bat jartzen uzteko.

EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA
FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN

NAFARROAKO IGERIKETA FEDERAZIOA
FEDERACIÓN NAVARRA DE NATACIÓN